



EBAZPENA, 2018ko apirilaren 24koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, 2018-19ko eta 2021-22ko ikasturteen arteko aldiari Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan zuzendari aritzeko merezimendu-lehiaketa bidez hautatutako zuzendarien Hasierako Prestakuntza Programaren deialdia egiten duena.

Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak prozedura arautzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (egun, Hezkuntza Saila) mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko. Dekretu horrek, zeina maiatzaren 8ko 61/2012 Dekretuak, apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak eta abenduaren 5eko 262/2017 Dekretuak aldatu baitzuten, ikastetxe publikoetan zuzendaritza-karguaz arduratzeko hautagaiek gainditu behar duten Hasierako Prestakuntza Programaren baldintzak zehaztu zituen, 14. artikuluan. Artikulu horrek xedatu zuen, halaber, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokiola –kasu honetan, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari– Hasierako Prestakuntza Programaren deialdia, antolakuntza, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko ebazpena ematea.

Bestalde, otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 7. artikulua aplikatuz, 2018ko urtarrilaren 10eko Agindu baten bidez merezimendu-lehiaketa antolatu eta deialdia egin da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko, 2018ko ekainaren 30etik aurrera lanpostu hori hutsik izango duten ikastetxeetarako.

EBAZTEN DUT:

Lehen a. – Xedea

Zuzendarien Hasierako Prestakuntza Programarako 2017-2018ko ikasturterako deialdia egitea eta horren antolakuntza, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztea.

Bigarrena. – Egutegia, antolakuntza eta edukiak

1. Hasierako Prestakuntza Programa aurtengo maiatzaren 28tik ekainaren 15era bitartean gauzatuko dute, hiru txandatan.

- Lehen txanda: maiatzaren 28tik ekainaren 1era, Lasarteko Berritzegunean (Gipuzkoa).
- Bigarren txanda: ekainaren 4tik 8ra, Gasteizko Berritzegunean (Araba).
- Hirugarren txanda: ekainaren 11tik 15era, Bilboko Berritzegune Nagusian (Bizkaia).

Txanda bakoitzean 50 lagunek hartuko dute parte. Taldeak osatzeko, parte-hartzaileen lurraldea hartuko da kontuan. Lurralde batean 50 parte-hartzaile baino gehiago badago, muga horretatik gorako kopurua beste lurraldeetako txandetan banatuko da, bete gabeko lekuen arabera. Zozketa bidez erabakiko da.

2. 2. Programak 35 orduko iraupena izango du, era honetara banaturik:

- 30 ordu aurrez aurrekoak izango dira, 09:00etatik 15:00etara astebetean emango den ikastaro batean.
- 5 ordu parte-hartzaile bakoitzak txosten bat idazteko Hasierako Prestakuntza Programari buruz eta hautagaiek aurkeztutako Zuzendaritza-proiektuan programak izandako eraginari buruz.

3. Programaren edukia atal hauetan banatuko da:

- Jomugak eta esku-hartze estrategikoak zehaztea.
- Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua.
- Lidergo pedagogikoa.



- Barneko eta kanpoko eragileek parte hartzea eta lankidetzan jardutea.
- Ebaluazioa sustatzea eta aldaketa kudeatzea.

Hirugarrena. – Parte-hartzaileak

1.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek 23a baino lehen emandako ebazpenetan hautatutako pertsonak hartuko dute parte. Ebazpenok 2018ko urtarrilaren 10eko Aginduari jarraikiz emango dira (I. eranskineko, ñ apartatua), zeinak merezimendu-lehiaketara deitzen baitu Hezkuntza Sailaren mendean dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan 2018ko ekainaren 30ean hutsik geratuko diren zuzendari-postuak betetzeko zuzendariak hautatzeko.

2.- Hautatutako pertsonak hiru eguneko epea izango dute, aurreko paragrafoan aipatutako lurralde-ebazpena argitaratzen denetik, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari Hasierako Prestakuntza Programatik salbuetsita egotea eskatzeko, baldin eta honako baldintza hauek betetzen dituztela frogatzen badute Hezkuntza Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko Aginduaren I. eranskineko o) apartatuari jarraikiz:

- Urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretuan xedatutako zuzendaritza-eginkizunei buruzko prestakuntza-ikastaro bat edo zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea.
- 2018ko uztailaren 1ean, zuzendari-kargua gutxienez bi urtez bete izana egiaztatzea.
- Ikastetxe publikoen zuzendari izateko 2014ko urtarrilaren 3a baino lehenago emandako gaikuntza edo egiaztapena edukitzea.

3.- Nolanahi ere, salbuetsirik egoteko baldintzak betetzen dituzten pertsona horiek, hala nahi izanez gero, Hasierako Prestakuntza Programa egin dezakete eta, horretarako, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari ikastaroan onartu ditzan eskatu beharko diote hiru eguneko epean.

4.- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak, lurralde-ordezkarien ebazpenak argitaratzen direnetik bost eguneko epean, ebazpena emango du 2. eta 3. apartatuen arabera aurkeztutako eskaerak onartzeko edo ukatzeko.

3. apartatuko eskaerak onartzeko edo ukatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak irizpide hauek edukiko ditu aintzat:

- Lehenik eta behin, programa gauzatzeko lekurik badagoen.
- Bigarrenik, hautagaiek aurkeztutako zuzendaritza-proiektuari hautaketa-batzordeak emandako puntuazioa.

Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuta jakinaraziko zaie interesatuei.

Laugarrena. – Ebaluazio-irizpideak

1.- Parte-hartzaileen ebaluazioa honako hauetan oinarrituta egingo da:

- a) Parte-hartzaileek prestakuntzan egindako lanari buruz Hasierako Prestakuntza Programaren tutoreek emandako txostenak.
- b) Parte-hartzaileek Hasierako Prestakuntza Programari buruz eta horrek beren zuzendaritza-proiektuan izandako eraginari buruz egindako memoriaren edo txostenaren balorazioa.
- c) Prestakuntza-saioetara joatea.



2.- Ikastaroa gainditzeko, nahitaezkoa izango da prestakuntza-saioen % 90era joatea. Bestela, «Ezgai» kalifikazioa emango zaie, baldin eta ebaluazio-batzordeari ez badiote justifikatzen saioak huts egin izana.

Bosgarrena. – Ebaluazio-batzordea

1.- Hasierako Prestakuntza Programaren parte-hartzaileak ebaluatzeko, batzorde bat osatuko da. Horretan, bi sexuen presentzia orekatua izango da, gutxienez % 40koa, eta honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria edo horrek izendatutako ordezkari bat; batzordeburu izango da.

Batzordekideak: Hezkuntza-ikuskari bat, Hezkuntza Saileko ikuskari nagusiak proposatuta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatuko duena.

Berritzegune bateko zuzendaria, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatuko duena.

Idazkaria: Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuko teknikari bat.

2.- Ebaluazio-batzordeak zehaztuko du zer parte-hartzailek gainditu duten Hasierako Prestakuntza Programa, aurreko artikuluan adierazitako ebaluazio-irizpideen arabera. Parte-hartzaileei «gai» edo «ezgai» kalifikazioa emango zaie, eta halaxe geratuko da jasota dagokien aktan.

3.- Hasierako Prestakuntza Programako parte-hartzaileei posta elektronikoz jakinaraziko zaie «gai» edo «ezgai» kalifikazioa jaso duten. «Ezgai» kalifikazioa dutenek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, jakinarazpena egiten denetik hasita bi eguneko epean, eta Ebaluazio-batzordeak aztertu egingo ditu.

4.- Prozedura amaitu ondoren, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ebazpena emango du «gai» kalifikazioa jaso duten hautagaien behin betiko zerrendarekin, eta lurralde ordezkariari helaraziko zaie ekainaren 26a baino lehen, zuzendariak izenda ditzaten.

Gasteizen, 2018ko apirilaren 24an



LUCIA TORREALDAY BERRUECO

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria